



## AKTEA/20

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA  
(2023-09-05)

<b>Bilkurea:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Datea:</b>	2023-09-05 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	GIZARTE ETA KULTURA ETXEKO BATZAR GELEA
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:00
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:09
<b>Lehendakaria:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzakideak:</b>	URIARTE ANASAGASTI VICTOR ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	
<b>Idazkari akzidentala:</b>	KARMELE MUÑO A ARRIGAIN



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

**Sinadurea eta data**

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Datea: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1



## Aztergaiak

- 1 - Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-07-11 TGB (19)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Bizkai Buru kalea 12-14ko eraikinaren fatxadak birgaitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.
- 4.- Mikel Deuna kalea 17 zenbakiko lokala akademia bihurtzeko obra lizentzia eskaria onartzea.
- 5.- Helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzat 2023. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.
- 6.- Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.
- 7.- 106/2023 epai irmoaz berri ematea.
- 8.- Alkatetza dekretuen berri ematea.
- 9.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoala ikusita, bilkura hasi dau eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dagozan gai ei heldu deutsoe. Eموitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-07-11 TGB (19).

Bertaratutako batzarkideek 2023ko uztailaren 11ko 19/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

### 3.- BIZKAI BURU KALEA 12-14KO ERAIKINAREN FATXADAK BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

#### Xedea

Bizkai Buru kalea 12-14ko eraikinaren fatxadak birgaitzeko obra lizentzia eskaria.

#### Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko apirilaren 12an, Bizkaiburu kalea 12-14ko jaube alkarteak, Bizkaiburu kalea 12-14ko eraikinaren fatxadak birgaitzeko obra lizentzia eskaria aurkeztu eban Udalean. 2023ko apirilaren 14an, 18an eta ekainaren 15ean dokumentazio osagarria aurkeztu zan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

#### Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A RRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Дата: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



CSV: 07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

Bigarrena: 2023ko abuztuaren 7an udal arkitektoak aldeko txostena egin eban.

Hirugarrena: 2023ko abuztuaren 28an urigintza saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.

### Argudioak

Bakarra: Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen dan lez, Bizkaiburu kalea 12-14ko jaube alkartea eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Disziplina arautzen dauan ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoan araudiarekin bat dator.

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen dauan 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, obra lizentziak emoteko eskumena Alkatearen da, baina eskumen hori 2023ko ekainaren 29ko 3096. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

### Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bizkai Buru kalea 12-14ko jaube alkarteari, H48877393 zenbakidunari, eskatutako obra lizentzia emotea Bizkaiburu kalea 12-14ko eraikinaren fatxadak birgaitzeko.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honeek betetzera baldintzatuko da:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarri beharko da Udalean. Kasu honetan, 4.556,94 euroko fidantza.
- Proiektu osoaren kopi bisatu bat aurkeztu beharko da, Segurtasun eta Osasun Estudioa barne.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie, Udal Zerbitzu Teknikoei.
- Udaltzainekin adostu beharko da kontainerra eta aldamuen kokapena. Aldamuek hiri ingurunean 68/2000 dekretuak ezarritako irisgarritasun baldintzak beteko dituzte eta gutxienez, 1,5 metroko zabalera izango duen pasabidea geratu beharko da.
- PVCzko zorrotanak eta kanaletak margoztu egin beharko dira, fatxadaren koloreak erabiliz.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

#### Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Data: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



CSV: 07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

- Aplikaziozkoa izango da 732/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarritzko dokumentuak. (DB/SUA, DB/SI, DB/SE, DB/HE, DB/HR,DB/HS).
- SATE sisteman erabilitako materialeek, suteen aurkako araudiari jarraituz, B s3\_d0 ezaugarriak izan beharko dituzte gutxienez.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Baldintza honeetaz gain, obrea egiteko lizentzia eraginkorra izateko, lizentzia honeri erantsita doazan baldintza orokorrak bete beharko dira.

Ohartarazoten da baimen hau ez dala eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diran bitartean.

**HIRUGARRENA:** Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira Udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei jagoken obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diran Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita jagokon Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko dan, **lanek, indarrean dagoan araudiagazko daukien egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.**
- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalatu.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten dan dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu dirala egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) *Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.*

b) *Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelantarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.*

c) *Hondakin balorizatu eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

**Sinadurea eta data**

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Fecha: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



**LAUGARRENA:** Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi dan aldaketa oro udalari jakinarazi beharko jako, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagokiozan administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko dau.

**BOSGARRENA:** Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenatarako eta egiaztapenatarako sarbidea eman beharko jake, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

**SEIGARRENA:** Obrearen aurrekontua 787.265,50 €koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea hamabi hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaoz, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko dauala, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badau behintzat.

**ZAZPIGARRENA:** Obrak egiten diran bitartean, legez eskatu daitekeezan segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dagozan pertsonei kalterik ez egiteko.

**ZORTZIGARRENA:** Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitekeezan kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

**BEDERATZIGARRENA:** Obretako hesi, aldamiu eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

**HAMARGARRENA:** Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun eskusibopean.

**HAMAIKAGARRENA:** Baimen honek eragina izango dau udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez dauz aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

**HAMABIGARRENA:** Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagokizan tasak eta tributua likidatzeko.

**HAMAHIRUGARRENA:** Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsioak adieraziz.

#### 4. - MIKEL DEUNA KALEA 17 ZENBAKIKO LOKALA AKADEMIA BIHURTZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

##### Xedea

Mikel Deuna kalea 17 zenbakiko lokala akademia bihurtzeko obra lizentzia eskaria.

##### Aurrekariak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

##### Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Data: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Lehenengoa: 2023ko abuztuaren 4an, \*\*\*6865\*\* zenbakidun jaunak, Mikel Deuna kalea 17 zenbakiko lokala akademia bihurtzeko obra lizentzia eskaria aurkeztu eban Udalean.

Bigarrena: 2023ko abuztuaren 18an udal arkitektoak aldeko txostena egin eban.

Hirugarrena: 2023ko abuztuaren 28an urigintza saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.

### Argudioak

Bakarra: Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen dan lez, \*\*\*6865\*\* zenbakidun jaunaren eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Disziplina arautzen dauan ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoan araudiarekin bat dator.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 213 artikulua eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 19.5 Legeak artikuluari jarrituz, jardueraren aurrekomunikazioa aurkeztuta dagoen eanean, obra lizentzia emon daiteke.

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen dauan 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, obra lizentziak emoteko eskumena Alkatearen da, baina eskumen hori 2023ko ekainaren 29ko 3096. zenbakidun Alkatetzat Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

### Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: \*\*\*6865\*\* zenbakidun jaunari, eskatutako obra lizentzia emotea Mikel Deuna kalea 17 zenbakiko lokala akademia bihurtzeko.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honeek betetzera baldintzatuko da:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarri beharko da Udalean. Kasu honetan, **130,87** euroko fidantza.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerren kokapena.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

#### Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Data: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1



- Aplikaziozkoa izango da 732/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarritzko dokumentuak.(DB/SUA, DB/SI, DB/SE, DB/HE, DB/HR,DB/HS).
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Baldintza honeetat gain, obrea egiteko lizentzia eraginkorra izateko, lizentzia honeri erantsita doazan baldintza orokorrak bete beharko dira.

Ohartarazoten da baimen hau ez dala eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diran bitartean.

**HIRUGARRENA:** Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira Udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei jagoken obra amaiera ziurtagiria eta likidazinoa. Obra amaierako dokumentazinoa obra-zuzendari izan diran Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita jagokon Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko dan, **lanek, indarrean dagoan araudiagazko daukien egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.**
- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalatuak.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten dan dokumentazinoa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispn-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu dirala egiaztatzeke.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeke, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.
- b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.
- c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispn-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.

**LAUGARRENA:** Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi dan aldaketa oro udalari jakinarazi beharko jako, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

**Sinadurea eta data**

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Data: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



betetzeak obrak geldiaraztea eta dagokiozan administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko dau.

**BOSGARRENA:** Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenatarako eta egiaztapenatarako sarbidea eman beharko jake, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

**SEIGARRENA:** Obrearen aurrekontua 58.543,99 €koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamuniket hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea hiru hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaoz, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko daua, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badau behintzat.

**ZAZPIGARRENA:** Obrak egiten diran bitartean, legez eskatu daitekeezan segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dagozan pertsonen kalterik ez egiteko.

**ZORTZIGARRENA:** Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitekeezan kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

**BEDERATZIGARRENA:** Obretako hesi, aldamiu eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

**HAMARGARRENA:** Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun eskusibopean.

**HAMAIKAGARRENA:** Baimen honek eragina izango dau udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez dauz aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

**HAMABIGARRENA:** Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagokizan tasak eta tributuoak likidatzeko.

**HAMAHIRUGARRENA:** Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsuok adieraziz.

## 5. - HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK EGITEN DITUZTEN BERMEOKO BIZTANLEENTZAT 2023. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

### Xedea

Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

#### Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297  
Data: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia





## Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, 2020-22 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Berariazko Oinarriak onartu zituen. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bigarrena: 2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkurak, zenbait berariazko oinarri aldatzea onartu zuen eta, euren artean, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten biztanleentzako dirulaguntzenak. Erabaki horren iragarkia 2020ko urriaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hirugarrena: 2020-22 epealdirako urtez urteko dirulaguntza deialdiak onartu eta zabaltzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak; 2020ko azaroaren 10eko, 2021eko maiatzaren 11ko eta 2022ko uztailaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarretan, hurrenez hurren. Deialdi horiek udalaren webgunean, BDNS datu basean eta BAOn argitaratu ziren.

Laugarrena: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-25 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bosgarrena: 2023ko martxoaren 21ean kontu-hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin zuen.

Seigarrena: 2023ko martxoaren 21ean administrazio orokorreko teknikariak, 2023/19 txostena egin zuen.

Zazpigarrena: 2023ko martxoaren 31n, udal Osoko Bilkurak, homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen berariazko oinarriak aldatzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko maiatzaren 12an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Zortzigarrena: Kontu-hartzaileak, 2023ko abuztuaren 8an, aldeko txostena egin du.

## Argudioak

Lehenengoa: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina 2023ko ekainaren 19ko 000002976 zenbakidun Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zen.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko maiatzaren 12an argitaratutako oinarrien arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

### Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Fecha: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean eta BAOn argitaratzea.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi honen publizitatea argitaratzea.

## 6.- GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2023. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

### Xedea

Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, 2020-22 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Berariazko Oinarriak onartu zituen. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bigarrena: 2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkurak, zenbait berariazko oinarri aldatzea onartu zuen eta, euren artean, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako dirulaguntzenak. Erabaki horren iragarkia 2020ko urriaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hirugarrena: 2020-22 epealdirako urtez urteko dirulaguntza deialdiak onartu eta zabaltzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak; 2020ko azaroaren 10eko, 2021eko maiatzaren 11ko eta 2022ko uztailaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarretan, hurrenez hurren. Deialdi horiek udalaren webgunean, BDNS datu basean eta BAOn argitaratu ziren.


Laugarrena: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-25 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bosgarrena: 2023ko martxoaren 21ean kontu-hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin zuen.

Seigarrena: 2023ko martxoaren 21ean administrazio orokorreko teknikariak, 2023/19 txostena egin zuen.

Zazpigarrena: 2023ko martxoaren 31n, udal Osoko Bilkurak, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen berariazko oinarriak aldatzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko maiatzaren 12an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Zortzigarrena: Kontu-hartzaileak, 2023ko abuztuaren 2an, aldeko txostena egin du.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

#### Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Data: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1



**Argudioak**

Lehenengoa: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazonatutakoak.

Bigarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatzetza da, baina 2023ko ekainaren 19ko 000002976 zenbakidun Alkatzetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zen.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko maiatzaren 12an argitaratutako oinarrien arabera.

**BIGARRENA:** Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean eta BAOn argitaratzea.

**HIRUGARRENA:** Bermeoko Udalaren webgunean deialdi honen publizitatea argitaratzea.

**08:07ak direnean, Endika Etxebarria jauna sartu da batzarrera.**

**7. - 106/2023 EPAI IRMOAZ BERRI EMATEA.****Xedea**

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 106/2023 epiaiz berri eman zaio.

Epaiak honela dio hitzez hitz:

FALLO: Desestimar el recurso contencioso-administrativo formulado por la Procuradora Sra. López Linares en representación de [REDACTED] frente al Ayuntamiento de Bermeo contra Resolución desestimatoria de la Reclamación de responsabilidad patrimonial planteada contra el Ayuntamiento de Bermeo por los daños materiales sufridos por el vehículo [REDACTED], el día 31 de diciembre de 2.022, en la calle Pintor Benito Barrueta nº 2 de Bermeo, reclamación que dio lugar a la apertura de expediente 2023/IDA\_DEK0003, que se declaran conformes a Derecho, con imposición de costas a la parte recurrente si bien limitadas a 100 euros sin incluir el IVA.

**8.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkatzetza dekretuen berri emon da, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra jakitun geratu daiten.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

**Sinadurea eta data**

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Fecha: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1



**9.- ESKARI ETA ITAUNAK**

Ez da egon.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat emon dau batzarra goiburukoan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidautakoa eta erabagetakoa jasota geratu daiten, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dodanak, horren fede emoten dot, lehendakariaren oneretxiagaz.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazinoko .....(e)tik.....(e)ra arteko zenbakidun papelean jaso da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D5B2100N8D7H8H1P4U1

**Sinadurea eta data**

MIREN KARMELE MUÑO A RRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/09/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023  
11:01:15

DOCUMENTO: 20230875297

Fecha: 05/09/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unida dea:  
Erregistro nagusia

